




INGURUNeko HAZKUNDEA

Koronavirusak munduko hazkundera eragotzi du

TXINAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

TXINAKO BPG-A
1_{GO} HIRUHILABETEA
-% 6,8




Txinako BPGak %6,8 galdu zuen lehen hiruhilekoan. 1976tik izandako lehen atzeraldia da hori eta koronabirusaren krisiaren ondorioz gertatu da, bertako ekonomia gelditu egin zelako. Uzkuordura hori analistek aurreikusituzena baino handiagoa izan da, eta sektore guztiei eragin zien. Hain zuzen ere, nekazaritzaren balio erantsia %3,2 jaitsi zen, industriarena, berriz, %9,6 eta zerbitzuena, azkenik, %5,2. Martxoan, pandemia behera egiten hasi zenean, industriaren ekoizpena %11,0 murriztu zen, eta txikizkako salmentak, berriz, %15,8.

AEBetan, BPGaren hiruhileko arteko tasa %4,8 jaitsi zen, eta urte artekoa, berriz, %0,3an geratu zen, Covid-19k eragindako kaltea martxoaren amaierara mugatu zen arren. AEBetako ekonomiak ez zuen antzeko egoerarik izan 2009ko laugarren hiruhilekotik. Inbertsio pribatuak, esportazioek eta inportazioek bat-bateko jaitsiera ezagutu zuten. Kontsumo pribatuak eremu positiboan jarraitzea lortu zuen, baina hazkundera txiki batekin, eta soilik kontsumo eta inbertsio publikoek eutsi zioten errotuari.

AEBETAKO BPGAREN HAZKUNDEA


Urte arteko aldakuntza tasa

AEBETAKO BPG-A
1_{GO} HIRUHILABETEA
%0,3



EUROPAR BATASUNA 27EN BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2020ko martxoan, Europar Batasuneko estatu kideak hasi ziren koronavirusari eusteko neurriak zabalki hartzen. Hain zuzen ere, 2019ko laugarren hiruhilekoan bertako BPG %1,3 hazi ostean, Kontinente Zaharraren ekonomia %2,7 uzkuritu zen, Eurostatek argitaratutako lehen kalkuluaren arabera. Eurogunearen kasuan, berriz, jaitsiera hori %3,3ra zabaldu zen. Bi kasuetan, jardura ekonomikoaren beherakada hori 2009ko hirugarren

EUROGUNeko BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




hiruhilekotik inoiz gertatu den nabarmenena izan zen. Lan merkatuari dagokionez, Covid-19ren ondorioak ez dira islatzen, oraingoz, langabeziaren datuetan, martxoan apenas aldatu baitziren urtarrileko eta otsaileko mai-lekin alderatuta. Hain zuzen ere, Europar Batasuneko langabezia tasa %6,6koa izan zen martxoan, eta Euroguneak %7,4koa, aurreko erregistrotik hamarren bat gora bakarrik.

INEk argitaratu duen lehen kalkuluaren arabera, Espainiako ekonomia %4,1 uzkuritu zen aurteko lehen hiruhilekoan, 2013tik izan duen jaitsierarik handiena delarik. Barne eskariak 4,3 puntu kendu zizkion jardura ekonomikoari, kontsumo pribatuaren (-%6,7) eta inbertsioaren beherakada handiak baldintzatuta. Kanpo sektoreak, berriz, BPGari bi hamarren eman zizkion, esportazioak inportazioak baino gutxiago gutxitu zirelako. Lan merkatuari dagokionez, lan egindako orduen arabera neurtutako enpleguak -%4,2ko aldaketa izan zuen, 2019ko lehen hiruhilekoan lortutako erregistroa baino 5,6 puntu txikiagoa.

ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGE, BEA, Eurostat eta INE.